



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA

UROLA BAILARAKO 47. ARGAZKI RALLYA AZPEITIAN 2026 APIRILAK 5

OINARRIAK

- 1 - **Kamera digitala** eta memoria-txartela duten guztiek har dezakete parte.
- 2 - Parte hartzea **DOAIN** izango da eta izen ematea Azpeitiko Argazki Elkartearen egingo da, Dinamoa Kultur Gunea (Soreasu) goizeko 9:00etatik 9:30 etara, eta txartelen hustuketa toki berdinean 13:00etatik 14:00etara.
- 3 - **Ibilbidea: Azpeitia**
- 4 - Partaide bakoitzak **hutsik** dagoen memoria txartela ekarriko du. Bertan aterako diren argazkiak erresoluzio onenean aterako dira, JPG formatuan.
- 5 - Rallya 14:00etan bukatuko da. Egoitza berean deskargatuko dira txartelak. Gehienez 36 argazki aurkeztu ahal izango ditu partaide bakoitzak (kontroleko argazkia barne).
Argazkiak ezabatu ahal izango dira.
Argazkiak ezingo dira manipulatu. Ordenagailuaren erabilera debekatuta dago. Berezkotasuna, sormena, eta teknika izango dira kontutan puntuak ematean.
- 6 - Partaideak gai bakoitzeko argazki bat aukeratu eta **2026ko Apirilaren 9a baino lehen** posta elektronikoz argazkiakaa@gmail.com helbidera bidali beharko ditu, partaidearen zenbakia eta aukeratutako argazkien zenbakiak adieraziz.
- 7 - SARIAK:Nagusietan:
 1. Bilduma onena:.....150€ eta Azpeitiko Eskudela
 2. Bilduma onena:.....120€ eta Garaikurra
 3. Bilduma onena:.....90€ eta Garaikurra
 4. Herriko 1. ez saritua:.....70€ eta Garaikurra
 5. Rallyko argazki onena.....50€ eta Garaikurra
- 8- Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, argazki guztiekin argazki emanaldia eskainiko da eta ondoren sari banaketari ekingo zaio, Azpeitiko Argazki Elkartearen egoitzan, Dinamoa Kultur Gunea (Soreasu), Apirilak 16an gaueko 9tan.
- 9- Argazki sarituak antolatzaileen esku geldituko dira eta egokia irudituz gero, erabiltzeko eskubidea izango dute egilearen izena aipatuz.
- 10- Oinarri hauetan jasotzen ez den zerbait sortuz gero, bere erabakia antolatzaileen esku legoke.

OHARRA: AAEk, ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik.

Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta bere ondasunei sor lekizkiekeen kalteenak ere.

Ekintza honetan parte hartzeak berekin dakar arauok erabat onartzea